Hizkuntza normalizatua dakan herrialde batin berdina da zein hizkuntzatan itten den. Normalizatuak daudelako hizkuntzak. Miñon guria ezto normalizatua ordun ezin zayo tratamentu normala eman. Ezin zaio tratamentu bera eman hizkuntza bati edo bestiai. Zapaldua den hizkuntzari edo zapaltzailea den hizkuntzari ezin zaio tratamendu bera eman. Tokiya euki dezake? Netzako berez ez, eta tokiya ematen bazayo da de: ala venga VAAAALE, VAAAALE. Hola bat. Nik holakotan eta ya euskal teknikari bezela, nei gertatzen zait, jo Aitziber eske pelikula hau ekarri nahi dugu eta eske ezto euskeraz. Miño eske ekarri nahi dugu ze etorkinen gaia lantzen du, justo guk behar dugun, zea, ikuspegitik. Ta nik: nei ez eskatu rebajak itteko. In rebajak in ber baittuzue, biñon nei ez eskatu onartzeko rebajak. Osa nei ez eskatu esateko baietz. Osa... Edo kontrataziyo bat, ez? Ez dakit ze obra itteko. Jo eske... bitu UEMAKo teknikari nintzela Orexan. Aitziber eske nei honea frontoia pintatzea ez zait etorriko inorre. Inorre ez zait etorriko, osa kontratura ateatzen badut frontoian pintaketa, ez da inor aurkeztuko. Eta gainea jartzen badut faktura euskeraz in behar dila, osa, imposible. Ez? Ta nik, bale, biñon nere lana da esatea udalerri euskaldun bezela, zure funtzioa dela exijitzea hori. Eta ordun, nik gazteleraz in nahi dun horrei galdetuko niyoke: ingo zenuke Parisen ingelesez? Porque sí? Ez, ezta? Ez zenuke ingo... Ba frantsesak earrak dia horrekin. Eta Frantzian duten legia... han daon hizkuntza mailako legia da frantsesa babesteko inglesarengandik. Osea, frantsesa da Frantziako hizkuntza ofizial bakarra, inglesarengandik babesteko. Eta horregatik euskera eta bretoya eta ez dira ofizialak. Legia hoi pentsatu zelako inglesangandik babesteko. Eta klaro, momentu hortan estatua bera da. Guk ez dakagu gure estaturik. Guk gure estatua eukiko bagenuke ta ziurtatua eukiko bagenuke

euskararen iraupena... biñon ez dugu. Ez dugu ziurtatuta euskararen iraupena. Ordun, nik ezin dut sustatu Euskal Herriko Kultura euskaraz ez bada. Eta norbattek in nahi badu beste hizkuntza batian ba in dezala, biñon ezin dut pretenditu nere laguntza eukitzea. Nere laguntza ez du eukiko. Euskaraldiyan antolatuko dugu antzerki bat gazteleraz? Ez zaio inorrei okurrituko. Zergatik? Euskararen aldeko sustapenian ai galako. Miñon egunero in ber dugu euskararen aldeko sustapena. Gazteleraz idatzi nahi dun norbattek? Idatzi dezala. Miñon ez dezala pretenditu gure laguntza eukitzea. Ze laguntza ber duna euskara da. Eta nik erdal kulturak eta asko matte ttut e. Eta nik pelikulak bat gazteleraz ikusi dezaket izugarri gustora. Miñon horrek ez du esan nahi sustatu behar dugunik. Gizonak zentralidadian dittun antzerki konpainia bat eta bere obra guztitan gizonak bakarrik azaltzen dia eta emakumeen kontra egin gabe, biñon gizonak sustatzen dittuztenak eta... sustatzeko prest gaude? Ez. Eske oain feminismoa modan do. Modan do eta ordun ostia matxirulo kuadrilla bat nola defendatuko zu ta nola ekarriko zu? Estos hombres que... beren burua bakarrik ikusten dutenak. Nola ekarriko zu? Ba parekatu hoi euskera eta gaztelerakin. Gaztelera matxirulo hoiek, ta euskera da genero ikuspegia kontuan hartzen duna. Zein sustatuko dugu? Denentzat ona dena. Euskerantzat ona dena gaztelerantzat ona. Ahularentzat ona dena, indartsuantzat ona da. Oain, indartsuantzat bakarrik ona dena ahulantzat ez da ona. Bilatu beharko dittugu moduak elkarbizitza hortarako, kultura berriyak gure kulturakin ta gure hitzkuntzakin txertatzeko ta erakartzeko ta gerturatzeko eta ekarri berko dugu eta momentu batian antolatu berko dugu sanba ikastaro bat. Biñon euskeraz. Antolatuko dugu sanba ikastaro bat euskera eta brasileñua bada etortzen dena eta lau hitz euskeraz badakizki erakutsiko dizkiyogu beste 20 klase hoiek euskeraz eman ahal izateko. Hoi da kulturartekotasuna.

Zer garrantzi du zuretzat euskaraz lan egiteak edo tokian tokiko kultur ikuspegitik lan egiteak?

Ba esan bezela netzako kulturgintza, herrigintza, azken fiñian norberak bere errealitatetik itten du. Ni euskeraz bizi naz iya %100ian, ezin dut esan %100ian euskeraz bizi nazenik ze gurasuen etxian ez da euskeraz hitzitzen normalin. Biñon ni euskaraz bizi naz, oro har. Ta ni euskeraz naz. Ta ni euskaraz nazenez, sortzen dudana ta eragittia bilatzen dudana euskeraz itten dut tabeti re tokiko ikuspegitik. Herritik hasita.

Izan daiteke arazo bat Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketa soilik probintzietara mugatzea?

Neri topaketak hola gai bezela, topaketetan, egun bakoitzian edo egun bakoitza eskaintzia herrialde bati ez zait arazua iruitzen. Hoi izan daiteke lehen urterako proposamena. Hurrengo urte baterako propsamena izan daiteke gai zehatzen baten inguruan aitzia egun bakoitzian. Hor netzako gurutzatu dattezek gauzak. Izan datteke momentu batian egun bakoitza herrialde batei eskeintzia hango errealidadia ezautzeko, han itten dian gauzak ezagutzeko, alde bakoitzian itten dien gauzak ezagutzeko, biñon aldi berian gurutzatu dattezek bestelako gaiekin ere, ez? Urte batian izan datteke eskultura ez? eta egun bakoitzian herrialde bakoitzeko adibide batzuekin, biñon netzako ez da arazo bat. Keba keba. Bada, hari bat, laneako ildo bat eman dezakeen sistema bat. Miñon bueno, nik arazo bezela enuke ikusiko inondik inoa. Da aukera bat nik aukera bat eta aukera politta iruitzen zait hartara Euskal Herri osua kontuan hartzia eta... diaspora ere agian hor, ttak. Zortzigarren egun bat sartu berko litzake. Gure Eskuk ere bere zozketan, urteroko zozketan, herrialde bakoitzeko boleto bat izaten du biñon diasporak badu bere boleto propiyua. Hola, idea bezala.

Zuk Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketan parte hartuko bazenu, nola egingo zenuke?

Nik parte hartu beharko banu, beno ez nuke parte hartu beharko dagoeneko ez nazelako gazte, biñon parte hartzekotan hartuko nuke parte kudeatzile bezela, antolatzaile bezela, eskulangile, antolaketa azken finian. Antolaketan ingo nuke gustoa eta beste momentun batian izan natteke aurkezle. Bakizute, nei mikruak asko gustatzen zaizkit. Antzerkiyan aittu naz, bertsoan re aittu nintzan bere garayin. Eta mikroekiko badut halako harreman estu xamar bat. Ordun, bai, nik ingo nuke holako... bai. Ez dut uste ni hasiko nintzakeenik deuse artistikoik sortzen. Ez. Nere esparrua geyo da antolaketa, kudeaketa. Aurkezle lanak. Antzerkiyak in izan ttut, eta ingo nuke berrize gustoa antzerkiya berrize, biñon momentu hontan ez dut ikusten nere burua denbo gehiegi eskaintzen gauza artistiko bat sortzea. Ez. Biñon buebo, hoi da, kudeaketan, antolaketan, aurkezpenetan... Holakotan. Hoixe.

Zer izen jarriko zenioke Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketari?

Jo ba izenak sortzeko eta euki dut normalian habilitade dexente. Biñon uan hola etzait deuse bururatzen... eee... netzako izenian enuke sartuko ez gazte ez... azpтитulu bezela bai, ez? Gazte Sortzaileen Topaketa. Biñon izen propiyo bezela, ez niyoke sartuko gazte hitzaren ez atalik ez gazte hitza bea re. Lenguan saten genuna. Zer da gazte izatia? Zein da gaztia eta zein ez? Nik alde hortatik eznuke hainbeste mugatuko. Azpтитulu bezela bai, ba bueno hor pixkat markatzeko gazte sortzaileen topkaeta dela, biñon izen propiyuan ez. Hola sormen momentu hoitakon batian zeozer bururatzen bazait botako. Biñon oaintxe hola boteprontuan etzait ezer etortzen.

Anexo F: Entrevista a Aitzol Saizar Viaña, Concejal de Cultura de Lezo

Sarrera: Nortasuna

Zer da gaztea izatea?

Gaztea izatea bizitzeko modu bat da. Heldua izan aurretik bizi duzun denbora tarte mugatua. Denbora tarte hori ez da finkoa, pertsona bakoitzean tarte desberdina da, baina beti ere mugatua da. Pertsona bakoitzak bere modura bizi du gaztetasuna, horregatik definitzea ezinezkoa da.

Zer da sortzailea izatea?

Sortzaile izatea pertsona batek edo parte zaren kolektibo batek gizarteari ekarpen bat egitea da. Nahi eta askotan sortzailea eskulanaren bidez zerbait sortzea deitu, izan objektu edo esperientzia, gizartea hobeago bat eraikitzerako bidean sormena erabiltzea ere sortzaile izatea da.

Gazte sortzaile izatea?

Aurreko biak uztartzea da, gazte sentitzen den batek gizartean eragiteko sormena erabiltzea.

Nola deskribatuko zenuke zure burua?

Nire burua kamaleoi deskribatuko nuke. Une oro gauza berriak ikastea gustatzen zaion pertsona. Buruari buelta asko ematen dion pertsona ere banaiz. Eta nola deskribatuko lukete zure ingurukoek zure burua? Pazientzia eta enpatia duen pertsona bat, konfiantza transmititzen duena.

Artea eta Gizartea

Zein lotura duzu arte munduarekin?

Lotura zuzena dudala esango nuke. Nire bizitzaren zati garrantzitsua da artea.

Zure ustez, zer paper du arteak gaur egungo gizartean?

Erabatekoa. Artea gizartea trakzionatzeko eta gizarteko dilemak hausnartzeko funtsezko tresna da.

Zer paper jokatzan du zure identitate pertsonalak (generoa, hizkuntza, lurraldea, etab.) zure obran?

Obra artearen produktu bezala ulertuta ezer ez. Ez baitut produkturik. Obra modu abstraktuan ulertuta berebizikoa. Nire kontsumo ohiturak eta sortzen ditugu mugimenduetan berebiziko garrantzia dute identitate pertsonal eta kolektiboek. Bakoitzaren identitatetik identitate kolektibo bat sortzeko helburu dute denek.

Kultura kudeaketa

Zer hobetuko zenuke zure inguruko kultura-proiektuak diseinatzeko edo kudeatzeko moduan?

Gaitasuna edukitzea aurrekontutan ez zentratzeko. Askotan nahiz eta ideia asko eduki, lurreratzeko garaian aurrekontuak baldintzatzen du.

Euskal Herriko Gazte Sortzaileak

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa esaten badizut. Zer datorkizu burura?

Euskal Herriko gazteak elkartu eta bakoitzaren esperinetzietatik abiatuta hausnarketak abiatu. Bestetik, publikoari emankizunak eskaini.

Nolakoa imajinatzen duzu Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa bat? Zerk ez luke falta beharko? Zerk ez luke lekurik?

Sortzaileen artean harremanak sortzeko guneak. Publiko berria erakartzeko guneak.

Zenbat iraun beharko luke Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketak?

Asteburu bat adibidez?

Zein egitura eduki lezake festibalak? Zein ekintza, oholtzaratze, espazio, mahai-inguru...

Ez nahiz xehetasunetara iristeko gai.

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketa aipatzen dugunean, ba al du lekua gazteleraz sortzen duen sortzaile batek?

Zalantzak. Printzipioz ez. Hala ere, euskalduntasunera bidean momentu puntual batean gazteleraz sortzen duen pertsona batek badu lekua.

Zer garrantzi du zuretzat euskaraz lan egiteak edo tokian tokiko kultur ikuspegitik lan egiteak?

Berebizikoa. Nik artea euskaraz ulertzen dut. Hala ere, hainbat espaziotan ulertu behar da ez dela horrela eta horietara moldatzea interesgarria (ez beharrezkoa) dela uste dut.

Izan daiteke arazo bat Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa soilik probintzietara mugatzea?

Bai, ulertzen dut probintzietara mugatzeak antolaketa lanak errazten dituela baina iruditzen zait ateak ere ixten dituela. Lurraldekotasuna haustea uste dut interesgarria dela. Ez agian defektuz baina bai horretarako espazioak utziz.

Zuk Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketan parte hartuko bazenu, nola egingo zenuke?

Nik nahiko publiko moduan. Kultur programatzaile aldetik ere hartuko nuke parte.

Ze izen jarriko zenioke Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketari?

Pff zaila. Siglekin jolastuko nuke. Euskal Herriko Gaso (gazte sortzaile) Topaketak!

Anexo G: Entrevista a Arnatz Álvarez Puertas, Actor

Sarrera: Nortasuna

Zer da gaztea izatea?

Eske irakurri nun galdera hoi ta super konplikatua iruditu zitzaidan. Osa pentsatu nun lehenengo zenbaki baten rolo zerk markatzen du gazteria? Adinak? Akitude bat? Ikusi ditut ni baino helduagoak diren pertsona batzuk ni baino gazteagoak dienak. Zentzu askotan. Nik uste gazteria dela gauzak probatzeko etapa hori. Ez dakit. Komo oaindikan da nagusitasunaren trantsizio hori non sortzen dan zure identitatea ezta? Eta hasten zea probatzen oaindikan ez dituzulako gauzak argi igual geo igual nagusi zarenean ez dituzula ezta. Baina, bai, nik uste dela etapa hori non gauzak probatzeko aukerak dituzun eta zure identitatea bilatzen tzun. Ta aldi berean nagusia zara munduari gauzak eskaintzeko. Ese punto medio, bai.

Zer da sortzailea izatea?

Sortzaile izatea da batez ere... ez da artea bakarrik izan behar. Baina zerbait sortzeko grina izatea. Aristikoki edo... ez zait okurritzen zerbait artistikoa ez dena. Sortu dezakezu mahai bat baina hori baita artistikoa da, ez dakit. Bai, mundura ekarpen egiteko grina izatea. Ordun, mundu hontara zerbait ekarri nahi duzu, zerbait sortu nahi duzu, ikusi-entzun, zerbait sortu nahi duzu... eta sortzaile izatea ez da bakarrik egiteko gaitasuna izatea, ze askotan gauza ugari ditugu eta ez dizkigunak hori egitera... hori egiteko aukera ematen... baina gutxienez gogo horiek izatea, grin hori izateak sortzaile egiten zaitu. Bai, nik uste barneko zerbait dela.

Gazte sortzaile izatea?

Eske batera doaz nere ustez gazteria eta sorkuntza askotan... ze askotan, esan dudana. Gazteria da probatzeko etapa hori eta sortzaile izatea da sortzeko grin hori... ordun, biak oso ongi konbinatzen dira. Zerbait probatu behar dut eta zerbait

ekarri nahi diot mundu honi... ordun, gazte sortzaile izatea da gazteen ikuspuntutik batez ere, ta gazte aktitude esperimental hortatik zerbait sortzeko grina izatea. Ese sería la frase.

Nola deskribatuko zenuke zure burua? Eta nola deskribatuko lukete zure ingurukoek zure burua?

Pertsona bezela? Bua... (PAUSA) Ba ni puta idea. (PAUSA) Ostia asko pentsatu behar dut. Igual hau idatziko dizut. Bai, apuntatu hau... bestela denbora jungo zaigu.

Artea eta Gizartea

Zein lotura duzu arte munduarekin?

Ba aktorea naiz... ni hasi nintzen aktore bezala... duela 6 urte... 6 urte profesionalki lan egiten 2019 edo 2018? 19an izan zen sartu nintzan... pabellón 6ko gazte konpainian eta geroztik batez ere... bueno ta Dantzertin ere egon naiz. Eta geroztik batez ere aktore bezela formatu naz. Baina egia da gauzak sortzen dituzunean aktore bezala beste sortzaiileak ikusten dituzula sortzen eta grin hori ere sortu zen eta hasi zen sortzen... de hecho, zuk badakizu, baina bukatu genuen dantzeri in genun konpainia baita sortzeko behar hortatik sortu zan. Como... vale, beste istoria batzuk kontatzen ditugu aktore bezala eta dibertigarria da ta oso enriquecedor? Aberasgarria. Oso aberasgarria da. Bainon egia da daudela gauza batzuk ez nituzkeela hola egingo... eta nik nere modura nahi ditudala egin gauzak. Osa ikasi ostean eta beti egongo nazela ikasten, hori argi dakat, baina beste pertsona batzutatik asko ikasi dut, ordun san nun, ostia, gogua dut baita nere obrak egiteko.

Hasi nintzen aktore bezala. Gero ateratzerakoan esan nun, zerbait sortu nahi dut.

Sortu genun EROS obra IXO Teatroakin eta baita hor ikusi nun nere zuzendari

fazeta eta nahi nula jarraitu desarrollatzen. Eta baita nere dramaturgo fazeta, ezta ere ez dia lan handiak izan baina da sortzaile kontzeptu horrek asko identifikatzen nauela esango nuke. Eta oain baita, pos, sortzaile bezala jarraitzen; aktore bezala jarraitzen baita, ikasten eta bilatzen eta lantzen eta esploratzen, baino baita sortzaile bezala, como ikusten zein den nere istorioak kontatzeko moduetariko bat momentuz. Ta baita gazte izatea... horren harira, gazte izatea da gauzak probatzeko denbora izatea. Ze 60 urte badituzu esaten zu... ya voy a lo seguro que quiero hacer algo que a la gente le vaya a gustar. Oain baita, baina aldi berean 23 urtekin saten zu... voy a probar esto, no? Denbora izango dudala iguala para arrepentirme, ez? Ahora hago una copmañía que no tiene palabra, porque puedo permitírmelo, porque sé que podré hacer algo que tenga palabra. Momentuz, osa printzipioz, por cómo es la vida normalean. Hoi, aukera hoi izatea, denbora izateko aukera izatea.

Zure ustez, zer paper du arteak gaur egungo gizartean?

Bi helburu ditu. Batzutan gure... eske... a ver si me acuerdo de la frase zela antzerkiko frogetan in genua: bide erratuei norabidea argituko dizuen sua ta bidaiari ziurrei begiak lausotuko dizkien sua. No sua era solo al final. Pero es eso, como, kasu hortan, es cuando tú tienes las cosas muy claras algo te lo va a poner en duda o cuando tú estás muy perdido algo te va a aclarar. Eta hoi baita ikusten dut gaur eguneko artean baita batzutan como que nos sirve para distraernos, como entretenimiento, rollo munduan gauza gehiegi daude, pixkat nahastuta daude y hay algunas obras que me entretienen, me hacen pasar un buen rato, me sacan de este mundo real; ta beste batzuk, te aterrizan en el mundo real. Como... hau dago. Te hacen identificarte con eso. Ordun, arteko bi diziiplina hoiek daude. Eta ikusten dudanagatik eta zenbakiek esaten dutenagatik behar dugu batez ere mundu honetatik aldendu, edo hori eskatzen digu gorputzak. Beharbada ez genukeela

behar, ee, baino ikusten tzu zinemetan zerk dakan zenbaki gehien eta batez ere dira mundu hontatik ateratzen zaituen gauzak. Ta behar ditugula bita. Nik uste arteak batzutan dakala... izan dezakeel aukera... konplikatua da zer dan... bueno, he dicho muchas cosas.

Zer paper jokutzen du zure identitate pertsonalak (generoa, hizkuntza, lurraldea, etab.) zure obran?

Ba arlo guztitan afektatzen du ze azkenian gure sorkuntzetan gure nortasuna jartzen saiatzen gara ezta? Nik uste ideologikoki, politikoki, bakoitzak izan ditun bizipenak nahi ta nahi ez hor agertzen direla. Gure ikuspuntua jartzen dugu gure sorkuntzetan. Ta baita nik uste beti saiatzen geala ikuspuntu hori moldatzen ta eraldatzen publikoari... ze nere ustez oso konplikatua da gure sorkuntzetan beti guztiz sentitzen edo pentsatzen duguna sartzea gure sorkuntzetan. Ordun, bai, moldatzen dugu gure ikuspuntua baina gure ikuspuntuarekin jarraitzen dugu.

Kultura Kudeaketa

Zure diziplina artistikorako babes instituzional eta sozial nahikoa dagoela sentitzen duzu?

Suposatzen dut inoiz ez dala nahikua, ez? Baina oraindik ezin dut baietza edo ezetza eman ze ez ditut inoiz dirulaguntza horiek eskatu. Beno noizean behin eskatu ditugu “para la dramaturgia” edo... baina ez dut inoiz egitan zerbait aurkeztu, ordun ez dakit nola sentituko dudaneure burua... egia da mundu guztiak esaten dula dirua falta zaigula sorkuntzak aurrera eramateko, aukera gutxi ditugula baita gazteoi etzaigula antzoki askotan antzezten... antzezteko aukera ematen... ordun beti, beti beharko ditugu laguntza gehiago ze argi dago lan prekario bat dela eta gure egoera prekarioa dela eta oaintxe bertan gazteria ezin dela artearekin bakarrik bizi. Normalean. Kaso konkretu batzutan eta beti “con el famoso pluriempleo” baino, bai.

Batzutan hitz egiten jende helduagoakin beti saten dute... ostia eske lehen ez dakit zenbat funtzio ateratzen ziren... orain jende asko gaude, artista asko gara, konpetentzia asko dago... baina gazteentzat konplikatuagoa da ze... bueno atzo esan nun, gaude “en proceso de prueba”, ez? Gauzak probatzen... lengoaia desberdinak aztertzen, experimentatzen... ordun jendeak ez gaitu ezagutzen eta arrisku hori daka. Eta bai, nik uste beti laguntza gehio ongietorriyak izango direla gure sorkuntzak aurrera eramateko. Resumiendo, ez dakit ez dudalako guztiz aurkeztu, baina beti beharko ditugu laguntza gehiago.

Nolako harremana izan duzu kultur kudeatzaileekin? Zer nabarmenduko zenuke esperientzia horietatik positibo edo negatibo gisa?

Ba... antzoki pribatu batzuk super... adibidez nik uste Pabellón 6ek iten dun lana, ez dakit, nik egitan miresten dut. Izango ditu beren gauza onak edo txarrak, baino gazteontzat duten proiektua, gazteona, Euskal Herriko gazte guztiei gomendatzen diet benetan. Dantzerti ez diet guztiei gomendatuko baina Pabellón 6eko gazte konpainiara aurkeztea bai. Ze aukera ematen dizu obra bat egiteko... jendea joaten da ikustera... benetazko publiko bat dela... benetazko zuzendari batzuekin... hemengo benetazko obra batzuk egiteko aukera izatea eta hori gomendatzen dut. Neretzat hori aukera bat izan zen eta egia da badaudela zuzendari dramaturgo ta artista asko gazteekin kontatu nahi dutela. Baina gero, orokorrean, gauzak handitzen diren einean, konplikatuagoak ikusten dira gauzak... eta baita sortzaile bezela; ez aktore bezela, sortzaile bezela, askoz konplikatuagoa da. Adibidez, dramaturgo bezala, nork jarriko du konfiantza 20 urteko gazte batek idatzitako testu baten? Zeinek daka gaitasun hori? Ez daki funtzionatuko duen edo ez. Edo zuzendari baten. Ze zuzenduko du honek? Bakarrik dirudi... imajinatu nire kasuan 23 urte bakarrik ditudala. Dirudi bakarrik ni baino gazteagoak diren pertsonak

zuzendu ditzazkedala. Ez dakigu. Ni baino nagusiagoak diren jendea zuzendu ditut baino digo... helduak, helduagoak direnak, urteak daramatzanak... egon dienak antzerkia egiten, ez dakit, gai izango naz? Ordun sentitzen dut alderdi pribatuan batzuk aukerak ematen dituztela baino egia da, adibidez, programatzaileek badakigu ez gaituztela programatzen, oso konplikatua dela programatzaileek egitan gudan konfiantza izatea eta suposatzen dut dramaturgoekin eta zuzendariekin berdina gertatuko dela. Ze sorkuntza oso gauza konplikatua da eta gaizki egiten bazu desastre bat da. Ordun normala da jendeak ez izatea konfiantza gudan, baina bai, nikuste batez ere arlo hoietan programatzaile aldetik, antzoki askon aldetik, ez dutela konfiantza gazteongan. Gazte sortzaileongan.

Zer hobetuko zenuke zure inguruko kultura-proiektuak diseinatzeko edo kudeatzeko moduan?

Ba eskertuko nuke igual kultura eramaten dutenak sortzaile izatea modu baten. Rollo presentzia hori egotea... porke dirudi dirulaguntzak eskaintzen dituztenak edo... igual ee, baño... epaimahaia artistak izango dira, orokorrean ee. Baino antzokietan programatzaile batzuk daude esaten duzu: “zeba programatzen du pertsona honek?” “Ze motatako esperientzia dauka honek?” Igual ez dula esperientzia artistikoa izan behar baina ulertu behar du gure ofizioaren konplikazioak edo zailtasunak edo erronkak, helburuak... ta nik uste hori ulertzeko egon behar direla benetan ofizioa bizi izan duen eta bizitzen duen pertsona bat. Ez dakit, kultura eramateko kultura sortzen duten eta kontsumitzen duten pertsonak edo gure gutxienez elkarriketa hori sortzea. Izatea beti hitzegiteko eremu batzuk. Aurrekoan egin genuen elkarriketa bat en El Correo izan genula, sortzaile asko, adin ezberdinetakuk batzuk helduaguak, eta derrepente agertu zien gai batzuk super interesgarriak eta ez diela inoiz planteatzen ez daukagulako espazio bat horri buruz

hitz egiteko. Eta kultura eramaten dutenak ez gaituztelako entzutek, en si. Ta batez ere gazteoi, nork galdetzen digu zer behar dugun edo zer nahi dugun? Jende gutxi. Eta kontrakoa... ez dakit, Dantzertira ez dira etortzen dantzertin badakitela gazte ugari daudela. Seguramente zuzendaritzari galdetuko diote “zer behar dute?” Edo dena delakoa. Baina guri, gazteoi benetan ez digute galdetzen zer nahi dugun edo zer behar dugun. Eta guk jakingo dugu zer behar dugun, ezta?

Euskal Herriko Gazte Sortzaileak

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa esaten badizut. Zer datorkizu burura?

Ba literalmente hori Gazte Sortzaile batzuk elkartzeko, topatzeko eremu bat. Espazio bat non denok nahi dutena, ahal gean elkartu, hitz egin eta planteatu zeintzuk diren gure erronkak, gure helburuak, gure zailtasunak ta horri buruz hitz egin ta hori gestionatzen saiatzen. Imajinatzen dut espazio bat non gure nahiak edo gure asuntuak partekatzen ditugun eta modu baten igual sortu dezakegula, ez dakit, udalarekiko, osa udalarekin erlazio bat edo komunikatzeko modu bat adibidez. Eskaintza batzuk “edo bale, arazo hau daukat, norekin kontaktuta behar dut?” Ba gazteon artean igual ulertuko dugu edo ez dakit. Arazo hau dugu, bale argi dago ez digutela inongo kasurik egiten. Norekin hitz egin behar dugu hau aldatzeko? Edo zer gertatu behar da? Nola lortu dezakegu hau aldatzea? Bai, gazte sortzaileon artean hitz egitea gauzak aldatzeko ta hobetzeko.

Interesgarria izango zen aipatzea horrez gain ba gazteok ditugun sorkuntzak edo piezak aurkezteko espazio bat, baita ere, eta partekatzeo gainerakoekin ta ikusteko ta gero erreflexionatzeko... inkluso baita imajinatuko nuke ez bakarrik gauzak aurkezteko, sino working progressak aurkezteko ta egiteko fase esberdinetan dauden proiektuak aurkezteko aukera izatea. Ez bakarrik... bai proiektu osoak baita,

bitu, hau da, gure konpainia baita. Ta gero inkluso hori enlazarzea, osa egotea, ... adibidez ixo teatroakin, ixo teatroa igual “ba astelehenen egingo dute txarla bat ixo teatroakoak eta aurkeztuko dute... astelehenean boloka egingo dute EROSekoa eta asteartean aipatuko dute zein izan zen prozesua, zein zailtasun topatu dituzten...” aipatzea baita ere zeintzuk diren gazte sortzaileen konpainia baten egoera, adibidez. Proiektu desberdinak partekatzeko aukerak ematea, kurtsoak ematea, ... agian, Ana Garciak badauka Yoga klaseak ematen ditula. Gauza guzti horiek adibidez, artistikoki partekatzeko aukera ematea. ESADFest adibidez, baina gazteok sortutakoa.

Nolakoa imajinatzen duzu Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa bat? Zerk ez luke falta beharko? Zerk ez luke lekurik?

Nik uste dibersidadea beharrezkoa dela. San nahi dut, kolore, genero ta egoera ezberdineko pertsonak elkartzea. Ez izatea adibidez “denok lana dakaten pertsonen topaketa” batzuk egongo dira egoera prekariago baten, beste batzuk beste egoera baten... dramaturgoak, sortzaileak, zalantzak dituztenak, nahi dutenak sartu... lota guztietako pertsonak egotea. Ez bakarrik profesionalki lana dakaten aktoreak edo sortzaileak.

Zenbat iraun beharko luke Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketak?

Aber asteburuak badira bi asteburu gutxienez. Ta aste guztian zehar bada, ba astetxo bat. Astetxo bat edo bi aste. Depende, depende de cuántos días sean. Astetxo bat. Imagínate da ostegunetik igandera? pues bai, igual ostegunetik igandera lehenengo asteburua? Eta bigarrena larunbat eta igande. Baina 7 egun, igual.

También es injusto alguien un lunes y otros un sábado. (...) Se irían rotando. Baina disponibilitatea eta guztia... (...) Errealitatea hartzen, uste... bi aste itea litzateke

onena. Batez ere asteburutan osteguna barne lehenengo egunean edo holako zerbait. Ze geo, adibidez, publikoa behar badugu edo gazteak joan behar baga astelehen edo asteazkenetan es una putada. Ostegunetan, dices bira, hasten za gauzetara juten. Bainon eske larunbata libre dakazu normalean edo igandea libre dakazu normalean. Aber eske ez dakit ez dakit nola iten duten gainerako gestibalak. Astelehen bat arraroa da en si, normalean, ez dakit, konparatuko nuke.

Zein egitura eduki lezake festibalak? Zein ekintza, oholtzaratze, espazio, mahai-inguru...

Klaro. Interesgarria da probintziena baino adibidez disponibilitatea igual kasualidadez es como "tio astelehenean ezin dugu baino astearte, asteazken ta egun guztitan astelehenean izan..." hoi ere ahal da gertatu. Una persona está currando de repente. Ta hoi mierda bat da ze igual te pierdes la oportunidad de hacer una pedazo de obra porque no eres justo de bizkaia.

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketa aipatzen dugunean, ba al du lekua gazteleraz sortzen duen sortzaile batek?

Bakarrik? Ya, eske... parece que va a joder. Azkenean euskal sortzaileen topaketa bat egitea inevitablemente... politikoki baita posizionatzen zara. Ai za zazpi probintzia izaten kontuan ta Euskal Herriya ez da Euskadi, ordun politikoki badaka kontzientzia egon behar da. Ordun, bakarrik gazteleraz sortzen dun pertsona bat oso arraroa da ongietorri... también tengo una cosa de que hay que aceptar a todo el mundo ta hola... baino aldi berean nik uste juten dien piezak kontzientzia hoi gutxienez izan behar dutela. Edo, ez dakit, eske adibidez hemengo gehienak ez ziren sartuko. Baino Bizkaiakuak esaten dut. Baino adibidez no meten una palabra en euskera. Em, mira! Pues interesgarria da gutxienez planteatzea kontzientzia hori egon behar du, modu bat da sustatzeko, presente izateko eta gazterian... bai, ondo

iruditzen nau ze igual los de vulnera, o los de la brecha, dirían, “sabremos euskera, igual tendríamos que meter algo en euskera” zerbait, gutxienez, sartzeko zerbait euskeraz hontan gutxienez. Eso se lo forzaría. Ze egia da hemengo gazte gehienak, tio, osa ulertzen dudala que es como “todo en euskera”, ondo, igual ez da haien ama hizkuntza, ulertzen dut, baino planteatzea gutxienez bi bertsiotan itea obra? También es un poco, poca mira de negocio. Ez dut ulertzen por qué se limitarían a hacer solo en castellano, hemen. Ze nahi zu in, Getxon ta Barakaldon ta yasta? Nik uste bakarrik bada gazteleraz aurkeztuko dutena, ez da dena euskeraz izatea. Porque dantzak ahal dira egon ta ez izatea... baino kontzientzia hori izatea gutxienez.

Igual daude obra batzuk Euskal Herriari buruz jitz egiten dutenak eta gazteleraz egiten dutenak. Imáinate Anzhelika que haga una obra que hable cómo le cuesta hablar en euskera. Nik uste hori ongietorria izango zela. Porque también existe la realidad. Euskaldunak diren pertsonak; igual euskera ez dela eroso sentitzen diren hizkuntza bat ta ai dienak ikasten. Ta ausartzen. Ta hoiek, bai, ongietorriak direla hoiek.

Zer garrantzi du zuretzat euskaraz lan egiteak edo tokian tokiko kultur ikuspegitik lan egiteak?

Ba edozein lekutan dakan garrantzia. Kontziente izan behar za zein den egoera, zein den testuingurua gauzak egiteko... ekintza bakoitzak daka bere erantzuna leku baten edo beste baten. Ez da berdina hemen sbastika bat ateatzen badugu obra baten edo Alemanian ateatzen badugu. Bakizu beste inpakto bat sortuko dula. Ordun kontzientzia hori izan behar duzu. Aurrekuan torri zan Aste Nagusira Bilbon tipo bat que era de fuera, bea ez dakit nongua zen, con la pulserita de España. Kontatu nizun. Es conocer el contexto. Llegas aquí estás en txoznas. Seguro que no lo haces por provocar porque la llevas toda tu vida e igual no eres ni

de derechas. Baina kontziente izan behar za non zauden ta ze ai zan iten. Ta hemen berdina, no puedes plantear una obra de teatro que diga: “uy igual el Franquismo nonestuvo tan mal” aquí. con el daño que ha podido hacer. Kontziente izan behar za zein den testuingurua, zein den jendearen... leku bakoitzaren istorioa... historia eta istorioa. Zer kontatzen dugun hemen zer gertatu den hemen. Ez bakarrik politikoki. Baita, hori presente egon behar dela. Ez dakit, zein den egoera.

Adibidez, La Lucha por la Vida, que es una obra madrileña. Egia da Pio Baroja euskalduna zela, bueno Gipuzkoakoa zela, pero es como... ¿Por qué cuentas una obra en el Arriaga sobre Madrid que describe el Madrid de la época. Vale estás hablando sobre la España de la época ez dakit zer... biñon por qué Madrid? Kontziente izan behar zara non zauden, zergatik iten zun hau, zertarako. Baina leku bakoitzean presente izan ber zu zein den bere kultura, bere istoria, ideologia... guztia.

Izan daiteke arazo bat Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa soilik probintzietara mugatzea?

Interesgarria da oso, los representantes de Vizcaya, pum, los de Guipuzcoa, pum, los de... bai. Baina adibidez hoi, badira obra batzuk ya sortuak daudenak ahal diena egon fleksibilidade arazoak edo data arazoak, sinmas, que no sea solo un día que podáis actuar. Adibidez, así poder repartir. Derrepente zerbait gertatzen da. Bueno, bihar tartetxo bat dakagu baina Gipuzkoakoak ez dakit. Egun ezberdinetan badaude gertatzen da ESADFeten gertatzen zena, behin antzezten genuka ta gauza guztiak ikustera juten ginela. Igual Oiartzunen bada asteburu baten, igual juten dela mundu guztia ta saten dugu, kusiko dugu dena, azken egunean parranda do, geatzen ga ta kusten ditugu gauza guztiyak ta juten ga pote bat hartzea. Sortu daitekeela kuadrilla bat politta.

Zuk Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketan parte hartuko bazenu, nola egingo zenuke?

Uste dut jungo ginakeela gure konpainiarekin. Osa ya dakagunez... ostia, klaro, hoi baita gertatu daiteke. Eske hoi beste arazotxo bat da. Como Bizkaia Gipuzkoa. Bira, ostia eske hoi askotan gertatuko da ensi fijo. Porque derrepente si cogíamos o si hacían Aitor y Ander que querían hacer una compañía o algo, ya son de dos provincias baita. Bira. Bueno, ba hori, aurkeztuko nintzateke konpainiakin espektakulo bat ematen, eta interesgarria iruditzen nau konpainia bezela eta gazteek sortutako konpainia bat bezela jendeari kontatzeko aukera izatea. Izan genituen arazoak, incluso hablar de presupuestos. Esperientzia guztiak, todos los errores de los que hemos aprendido. Kontatzea bakoitzaren esperientzia. Porque da partekatzeoko aukera hori izatea. Topatzea ta partekatzea.

Ze izen jarriko zenioke Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketari?

Gazte Sortzaileen Topaketa... Izen bat... Estaba pensando las siglas. Esque en sí es eso, Gazte Sortzaileen Topaketa. Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketa. GST. Es largo pero le pondría otra cosa. Aber GSTk ya daka Euskal Herria ze euskeraz da hitza. Tendría que pensarlo, pero ahora mismo te diría Gazte Sortzaileen Topaketa.

Anexo H: Entrevista a Irantzu Idoate Funosas, Bertsolari

Sarrera: Nortasuna

Zer da gaztea izatea?

Gaztea izateak uste dut berekin badakartzala hainbat ezaugarri, errebeldia, indarra, berritasuna edo freskotasuna izan daitezkeenak. Gaztea da oraina. Eta gaztea bada ere belaunaldi guttietsi eta ez-ulertua gehienetan, problematika eta

egiteko modu propioak dituen. Gazteria haustura izaten da maiz. Eta uste dut alde guzi hori ere baitezpadakoa dela gaztea definitzeko edo ezaugarritzeko. Guretzat positiboa izanen den bezala, beste batzuk negatiboki ikus dezaketena da gaztea.

Zer da sortzailea izatea?

“Sortzaile” bada etxe bakoitzean definizio ezberdin bat hartzen duen hitza nik uste, erabat definitu gabeko terminoa. Zonbaitzuk sortzaile artistari deitzen diote, artea egiten duenari, baina hor sartzen da artearen definizioarekiko kalapita ere bai. Sortzailea neretzat sortzen duena da, hitzak erraten duen gisan. Eta izan dezakeen definizio hertsitik haratago, sortzaile denak izan gaitezkeela eta girela pentsatu nahi nuke. Bertso bat, dantza bat, antzerki bat, tindulan bat, jantzi bat, belarritakoak, gaztetxe bat, proiektu bat, etabar luze bat sortzen duen oro da sortzaile.

Gazte sortzaile izatea?

Kasu huntan sortzaile izatearen definizio bera emanen nuke, sorkuntzan dabilen hori. Eta gazte izateak berekin dakarren perspektiba, bizipenak, moduak lotzen dizkiona. Zentzu horretan, beritasuna ekartzen du gazte sortzaileak, haustura bilakatuko dena momentu jakin batzutan. Eta nere esperientziatik erranen nuke gazte sortzaile izatea badela lur ezegonkor batean sortzea, etengabe frogatzearen beharra, zure lekua egitearen beharra. Eta belaunaldikideekin sare bereziak sortzeko beharra eta aukera izatea. Ez dakit orokortu daitekeen baina lanaren helburua bera ezberdinki bizi dela erranen nuke, gazte sortzaileok argi dugu, badakigu gure sorkuntzaz bizi ezinen girela, eta beraz beste funtzio bat hartzen du sormenak gure bizitzan, aisialdia bera, aldarrikapena, gozamena izan daitezkeenak adibidez.

Nola deskribatuko zenuke zure burua? Eta nola deskribatuko lukete zure ingurukoek zure burua?

Bertsotan plazan hasi naizenetik gatazka handia izan dut nere baitan hunen inguruan. Nere burua bertsolari gisa izendatzea kosat zait anitz, baina sortzaile ere ez nekien erran nezakeen naizenik. Sortzaile hitza erabiltzen ez dut lortzen, baina gazte sortzaile terminoa erabiltzen dut lekuaren arabera, gazteen arteko espazio militanteetan adibidez. Uste dut jende helduarekin eta mundu hortan bere lekua egina duen jendearekin ez naizela ausartzen hala izendatzera. Kasu horretan, bertsolari gisa izan daiteke, nahiz eta erabat ez sinetsi huntan ere. Eta uste dut badela aski esanguratsua hainbesteko gatazka sortzea izendapen baten inguruan, ez onartzean zure buruari zilegitasuna zure buruari leku bat eman eta lana aintzat hartzeko. Pentsatzen hasi eta bertsolari naizela aski errex pentsatu nezake, baina hori adierazteko orduan hitzak eztatzen trabatzen zaizkigu hainbati, batez ere neska gazteoi. Eta uste dut ez dela soilik gure ardura. Hainbat eta hainbat aldiz, bertsolari deitu izan nauenari “bertsotan nabil” erantzun izan diot. Baina funtsean bai, bertsolaria eta gazte sortzailea naiz.

Eta ingurukoek ez dakit sobera, galdetu behar litzaieke. Bertsolaritzat naute denek, eta sortzaile hitza hainbeste erabiltzen ez bada ere sortzailetzat ere. Artista ere erran izan didate anitzek, nik inoiz hitz hori erabili ez badut ere, nahiago ez hola deitu. Eta ez dakit ingurukoek ala ez hain ingurukoek soilik, baina bertsolariari ezaugarriak esleitzen dizkiete ere bai. Gazte, nola ez, baina baita neska edo iparraldeko ere. Eta hauek aukera irekitzen duten hein berean, luzaz neretzako pisu ere izan dira. Ezberdintasuna izan daitekeena ezberdinkeria izatera pasatzen baita errex, muga lausoa da.

Artea eta Gizarte

Zein lotura duzu arte munduarekin?

Beti zaila egin zait “arte” deitzea nere inguruko sormen munduari. Arazo handi bat da nik uste, gure lekutik (gazte, euskaldun...) prestigioa kentzeko joera izan baitezakegu. Agian izan daiteke ere artea lotzen dugulako puntako sorkuntzari, lanbide bilakatzen den horri. Nik artearekin uste dut bereziki kultura ulertzen dudala gure inguruan. Euskal Herriko artean mugitzen naiz batez ere, eta euskal kulturako sorkuntzarekin lotura handia dut. Bertsoetatik senditzen naiz hurbilen, eta egunerokoan biziki presente ditut. Eta kantu, dantza eta antzerkiaren inguruko lanak segitzen saiatzen naiz, herriko sorkuntza xumeetatik hasi eta sona handiagokoetaraino. Sinetsita nago arteak lekua izan dezan ikusle, entzule, jarraitzaileak behar dituela, eta guk geuk eskaini behar diogula leku hori. Eta sortzaile gisa, erantzukizun berezia senditzen dut kideen lanarekiko, elkarren sustengu izateaz gain elkarrengandik ikasteko anitz dugulako. Artea elkarrekikotasun horretatik sortzen dela uste dut, inguruarekiko, munduarekiko, momentuarekiko eta sortzaileekiko elkarrekikotasun batetik.

Zure ustez, zer paper du arteak gaur egungo gizartean?

Artea barnearen adierazpen zintzo eta indartsuena izan daitekeela uste dut, eta horri balore handia ematen diot. Sorkuntza zure ideien, borroken, emozioen, bizipenen adierazpenaren mesedetan egiten duzu, eta sorkuntza orok egiten dio ekarpena gizarteari eta egungo munduari. Bozgorailuak bakar batzuei ematen zaizkien garaietan arteak adierazteko bide bat eskaintzen du, nahiz eta bide hori mozten ere ahalegindu zenbaitzuk. Zerbaitengatik sortzen du beldurra arteak, eta berebrearengatik zentsuratu nahi da behin ta berriz, badelako tresna bat gizartearengana iritsi eta mezuak pasatzeko. Eraldaketarako harri bat izan daiteke, hala erabilita dagoenean. Zerbait plazaratzen duzun momentutik ukanen du eragin

modu batean edo bestean, eta horren kontzientzia ukatea baitezpadakoa da sotzerako unean. Ardura bat ere bada.

Zer paper jotzen du zure identitate pertsonalak (generoa, hizkuntza, lurraldea, etab.) zure obran?

Paper handia jotzen du. Eta hala behar du, ezin luke bestela izan. Erran bezala uste dut sorkuntza zintzo eta egiazko batek berez dakarrela zure gorputzetik sortzea. Nere kasuan ere, identitate pertsonalak garrantzia handia hartzen du, Irantzuk kantatzen duenean, Hazparneko Irantzuk kantatzen du, Donostian ikasten duen Irantzuk, gorabehera anitz bizi dituen Irantzuk, euskaraz bizitzeko eta sortzeko hautua egiten duen Irantzuk, antsietatean murgildu ohi den Irantzuk, bere buruan konfiantza gutti duen Irantzuk, ... eta hori sorkuntzan nahi ala ez islatuko da. Ezin da sekulan erabat bereizi sortzailea sorkuntzatik. Nere identitateak eragina izanen du egiten dudan hortan, horretatik erabakiko dudalako adibidez zer sortu nahi dudan, nola sortu nahi dudan, norekin sortu nahi dudan. Espazioaren arabera aldatuko dena, baina beti ere oinarri horretatik abiatuko dena. Bertsolariaren kasuan, hitza eta ahotza jartzeaz gain, gorputza ere jartzen du sortzaileak, eta hor gorputzen duzunak (nahiz eta beti erabaki kontzienteeak ez izan) egiten du zure obra.

Kultura Kudeaketa

Zure diziiplina artistikorako babes instituzional eta sozial nahikoa dagoela sentitzen duzu?

Bertsolaritzaren kasuan zorte handia dugula erranen nuke. Urteetan zehar egindako lan militantearen ondorioz, gaur egun elkarteak ditugu lurralde guzietan, kontratazioez arduratzen den erakunde bat, sare oso bat... Maila instituzionalean beraz, bere hutsuneak izan baditzake ere marko batzuk behintzat badaude, erabiltzen ditugunak ahal denetan. Eta maila sozialean ere bertsolaritzak lekua egina

du jadanik Euskal Herrian, entzulego zabal bat dugu, fama handia lortzen duten txapelketak eta plazak ditugu. Hala ere, gazteon kasuan plaza guttiko sortzaileak izaten jarraitzen dugu kasu guzitan, eliteko bertsolariak badabiltza plazaz plaza astero, baina gazteok batzutan hilabeteak igarotzen ditugu plazarik gabe, nahiz eta leku batzutatik ahalegindu plazak sortzen guretzat ere. Gaztearena izaten da plaza handietako kupotxoak, eta behar bada 100 gaztetatik 15 izanen dira plaza gutti gora behera erregularrak dituztenak. Eta lurraldearen arabera ere desoreka nabarmena dago, Ipar Euskal Herriko hiru probintzietan adibidez, bertsolaritzak ez du Gipuzkoan bezainbesteko lekua, eta horrek eragia du jasotzen den babesean ere bai. Frantziar estatuan bertsolaritza ondar inmaterial izendatu zen, eta horrek dirulaguntza zenbait lortzea ahalbidetzen du, baina hala ere ez da nahikoa.

Nolako harremana izan duzu kultur kudeatzaileekin? Zer nabarmenduko zenuke esperientzia horietatik positibo edo negatibo gisa?

Beti izan du tratu ona, eta gehien-gehienean zaindua senditu naiz. Uste dut gaztea izateagatik kontu gehiago egiten dutela normalean. Hala ere, uste dut gazte gehienoi gertatzen zaiguna ordainketari buruzko kontua dela, anitzetan edo ez zaigu aipatzen, ez zaigu eskatzen iritzirik diru kopuruaren inguruan, helduagoekin aldiz aipatzen den lehen gauzetakoa den bitartean. Gainera, konplexuagatik guk, edo nik behintzat, galdetzeko ohiturarik ez dugu eta deserosotasun eta inseguritate handia sortzen duela uste dut. Gazte izateagatik aintzat hartuko ez bagintuzte bezala.

Zer hobetuko zenuke zure inguruko kultura-proiektuak diseinatzeko edo kudeatzeko moduan?

Zail egiten zait erratea, egia erran. Uste dut sustatzen segitu behar dela, eta kultur-proiektuak etengabe sortu, eraberritu, berpiztu eta berriak sortu. Uste dut diseinatzerako orduan denbora guzian buruan ukan behar liratezkeela sorkuntzak

berekin dakartzan bi aldeak, sortzailea eta publikoa. Eta hori kontuan hartuta, bien arteko oreka etengabea bilatzea gakoa dela uste dut, sortzaileentzako espazio eroso eta politak sortzea, eta publikoak ikusi, entzun nahi duena edo hortik gehien hurbiltzen dena eskaintzea. Eta gazteoi dagokigunez, argi da guretzako espazio propioak sortzen segitu behar dela, baina bestetik, kupo huts izatetik haratago merezitako lekuak eskaintzea, eta gure lana aintzat hartzea ere. Kudeaketan dabiltzanek lekua emanen diguten hein berean ikusiko eta onartuko gaitu publiko zabalak. Eta lurraldetasun mailan, berdina.

Euskal Herriko Gazte Sortzaileak

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa esaten badizut. Zer datorkizu burura?

Espazio eroso bat irudikatzen dut, norberak eta elgarrekin sortzeko eta sorkuntzak partekatzeko. Elgar ezagutu, sortu, hausnartu eta saretzeko espazio bat izan behar litzateke.

Nolakoa imajinatzen duzu Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa bat? Zerk ez luke falta beharko? Zerk ez luke lekurik?

Euskal Herri osoko gazte sortzaileak elkartzea irudikatu nahiko nuke, baina uste dut lanketa handia eskatuko lukeela. Izan ere, gazte sortzaileen sarea ez da eraikia oraindik, eta lan hori baitezpadakoa izanen litzateke topaketen aurretik ere. Beraz, antolakuntzatik hasita, lurralde ezberdinetako, adin ezberdinetako kideak egon behar liratezkeela uste dut. Beharrezko ikusten dut sorkuntza plazaratzeko espazioren bat egotea, baina baita batera edo elkarrekintzan sortzeko espazioa. Nere ustez, espazio eroso izateko beharrezkoa da ahalik eta parekoena izatea bermatzea, eta beraz eliteko artistarik ez dut bertan irudikatzen, Pello Reparaz

demagun (jejeje). Ez dakit ongi nola adierazi, baina uste dut errespetua eta erosotasuna bermatu behar litzatekeela.

Zenbat iraun beharko luke Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketak?

Progresiboa izaten ahal litzatekeela uste dut, egun batetik hasi eta ondotik kasik asteburu osoa izatera. Lehenagotik eskualdekako saiotxoekin behar bada. Prozesu bezala irudikatzen dut, ez egun mugatuetan hasi eta bukatzen den zerbait bezala. Giroa sortu eta jendea mugitzeko beharrezkoa litzatekeela uste dut.

Zein egitura eduki lezake festibalak? Zein ekintza, oholtzaratze, espazio, mahai-inguru...

Egun bakoitza probintzia bati legokiokeela kontuan hartuta, egitura berdintsua errepikatzea egokiena iruditzen zait. Eguna hasteko, tokiko artista gazte bat(zu)en hitzaldi/mahainguru bat prestatuko nuke, bertako ohiturez, egoeraz, espeirentziez, erronkez hitz egiteko. Kokapen orokor bat jasotzeko balioko luke. Probintziaren arabera eta ohituren arabera, baina ikasteko tailerrak proposatuko nituzke ere bai; esate baterako, Xiberuko dantzak, Baxe Nafarroako libertimenduko antzerki prestakuntza, jotak kantatzea, etab... Aurrez prestatutako ikuskizun bat oholtzaratzen ahal litzateke, tailerra hain erakargarri egiten ez zaion jendearentzat. Ondotik, sorkuntzarako tarte irekiko nuke, gidaritza batenpean, kolektiboki, edo nahi izanez gero, banaka sortzeko. Astearen bukaeran egun bakoitzean sortutakotik emanalditxo bat, edo plazaratzeko modu bat pentsatuko nuke. Borobiltzeko manera polita litzateke, eta Euskal Herriko xoko ezberdinetako hariei tiraka sortutakoak elgarrekin plazaratzeak topaketen muina ederki adieraziko luke. Ekitaldi polit bat ere egingen nuke arrats batez.

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketa aipatzen dugunean, ba al du lekua gazteleraz sortzen duen sortzaile batek?

Noski baietz. Galdera osatzeko hala ere, bai gazteleraz bai frantsesez sortzen duen sortzaileak du lekua, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberuako sortzaileengana jo nahi bada behintzat. Ez diot zentzurik ikusten topaketa horietan hizkuntzaren arabera banaketa egiteari. Euskal Herriaren errealitatea da diglosia egoera batean gaudela eta erderek nahiko ginueena baino leku gehiago hartzen dutela, ondorioz, batzuk erabakita beste batzuk halabeharrez, hainbat dira euskaraz sortzen ez duten Euskal Herriko gazte sortzaileak. Eta beraiek ere lekua behar dute argazki horretan gure herriko panoramaren parte baitira. Bat euskal sortzaile ez du soilik hizkuntzak egiten, beraz topaketa horietan ere arabera eskaintza bermatu beharko litzateke. Argi dago horretarako ere itzulpenak pentsatu behar liratezkeela, eta komunikazioa zailduko lukeela hainbat momentutan zenbaitzuen artean, baina uste dut hizkuntza ezin dela muga bat bilakatu saretzerako garaian.

Zer garrantzi du zuretzat euskaraz lan egiteak edo tokian tokiko kultur ikuspegitik lan egiteak?

Nere kasuan garrantzia handia du neretzat. Hautu bat da, inkontzientea parte handi batean, baina hautu pertsonal eta politikoa da euskaraz sortzea. Sortzaile izanik, euskarari plaza publikoan lekua eskaini eta euskara sustatzeko. Eskualdearen arabera gainera garrantzia gehiago hartzen du, eta beti ez da errexat. Neretzat nazionalki loturak eta ekarpena egiteko tresna inportantea da, zatituta nahi gaituztenak elkartzeko.

Izan daiteke arazo bat Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa soilik probintzietara mugatzea?

Helburuaren arabera. Beharrezkoa ikusten dut, lehenago erran bezala, lekuan lekuko sareak osatzea. Errexagoa da, eta funtzio garrantzitsua bete lezake tokian eragiteko eta elgarrekin aritzeko. Hala ere, beharrezkoa ikusten dut nazio mailako sare bat ere osatzen saiatzea, elgarrengandik ikasi eta nazio ikuspegia sustatzea baitezpadakoa da. Ondotik, eragina izanen duelako kultura pentsatu eta egiteko moduan ere. Probintzietako topaketak arazo baino tresna bezala irudikatzen ditut Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa gauzatzeko.

Zuk Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketan parte hartuko bazenu, nola egingo zenuke?

Uste dut parte hartze aktiboa sustatu behar dela kasu guzietan. Probintziaka egun bat eginen bada, gazteei prestakuntzan edo gauzatzean parte hartzeko aukera irekitzea egokia iruditzen zait, egiazkoagoa eta hurbilekoagoa senditzeko denek. Beraz, nik ere gisa horretan lagundu nahi nuke. Aitzin lanketan ere ekarpena egiteko prest nintzateke.

Ze izen jarriko zenioke Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketari?

Elkarri so(r) izena jariko nioke. Inportantea iruditzen zait elkarrekikotasuna adieraztea, eta hitz gako nagusia iruditzen zait. Eta so egitearen ideia ere hai berari tiraka dator, eta hori sormenarekin loturik. Soinuak “zor” hitzari ere erreferentzia egin diezaioke, eta zentzu negatiboan erori gabe, polita atxemaiten dut.

Anexo I: Entrevista a Irati Peluaga San José, Pintora

Sarrera: Nortasuna

Zer da gaztea izatea?

Mundu honetan denboratxo bat igaro izana da gaztea izatea, baina ez gehiegi, beti daude denbora gehiago igaro duten pertsona horiek. Zure nortasuna eraikitzen zoaz gutxika (naiz eta beti doan aldatzen). Uste det oinarriak garatzen direla gaztaroan. Heldutze prozesuaz kontzienteagoa izatea ere da gaztaroa.

Zer da sortzailea izatea?

Griña da. Gauza zehatz (edo ez hain zehatz) batzuekiko grina euki eta hori errealitatera nolabait eramatea.

Gazte sortzaile izatea?

Gaztetasunak askotan ere griña dakar, eta sortzeak gauzak edo ideak errealitatera ekartzeak. Mundura zer ekarri nahi dezun pentsatzea da, zuretzat, norbaitentzat edo denontzat. Aukerak desberdinak dira.

Nola deskribatuko zenuke zure burua? Eta nola deskribatuko lukete zure ingurukoek zure burua?

Galdera zaila. Kulo inquieta. Sentibera. Burugogorra. Emozionala. Pixkat rara batzutan (euskal herriko jende norbatiborako). Interes ugarietako. Fantasioa eta pragmatikoa. Pentsatzea eta elkarriketa intensoak gustatzen zaizkion horietakoa. Enpatikoa.

Arte eta Gizarte

Zein lotura duzu arte munduarekin?

Arte Ederrak ikasitakoa naiz. hori izan zen nere lehen lotura, ez guztiz erreal unibertsitateko filtrotik pasata zelako nere harremana. Karrera amaitu ondoren hasi nintzen lotura errealagoa edukitzen, lana egiteagatik. Arte garaikidearekin gaur egun

ez dut lotura esturik, oso kontzeptuala eta filosofioa egiten zait. Bai ordea beste arte mota batzuekin, nere pragmatikotasun horretan gogokoagoak egiten zaizkidanak. Literatura, ilustrazioa, arte zuzendaritza marka edo enpreserara zuzendua...

Zure ustez, zer paper du arteak gaur egungo gizartean?

Uste det arte garaikidea (kontzeptualagoa dena eta) gaur egun burbuja baten barruan dagoela. Bere baitan eta kodigo propioekin funtzionatzen duen mikroklima baten antzerakoa. Herrira ez da iristen. Edo herriak ez du ulertzen.

Baina, ondoren herrira iristen diren gauzak daude (musika, erropak, zinea, joera estetikoak, gauzak egiteko MODU BERRIAK) , beste forma batzuetan, enbudo (barka erderakada) batetik pasata bezala. Beraz badu eragina, agian MODU BERRI hoietan pentsatzeko laborategi bat delako. Eta garrantzitsua da gizakiok gauza modu berrietan ikusteko eta pentsatzeko espazioa edukitzea. Beti irudituko zait hori garrantzitsua.

Zer paper jotzen du zure identitate pertsonalak (generoa, hizkuntza, lurraldea, etab.) zure obran?

Ba paper handiena. Ni gauza horiek guztiak naizelako eta hortik sortzen dudalako. Sorkuntza ez da ezerezetik datorren zerbait. Gizartearekin, pertsonarekin, egoera politikoarekin... denarekin dago lotuta, gizaki denak gaudelako horrekin lotuta eta gizakiek sortzen degu artea.

Kultura Kudeaketa

Zure diziplina artistikorako babes instituzional eta sozial nahikoa dagoela sentitzen duzu?

Ez. Eta neri oraindik ere gertatzen zait pentsatzen dudala egin dudanak ez duela balore nahikorik gizartean (enaizelako mediko, ingeniari, abokatua...)

Nolako harremana izan duzu kultur kudeatzaileekin? Zer nabarmenduko zenuke esperientzia horietatik positibo edo negatibo gisa?

Ba ez det harreman oso handia eduki. Gustatuko litzaidake gehiago izatea. Baina euki dudan gutxia ondo egon da.

Zer hobetuko zenuke zure inguruko kultura-proiektuak diseinatzeko edo kudeatzeko moduan?

Ezin naiz kejaratu. Euskal herrian (eta orain bartzelonan) asko asko mugitzen da kultura. Eta maite dut hori. Gehiago joko nuke lanpostu horiek prekarizatuak ez egote aldera.

Euskal Herriko Gazte Sortzaileak

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa esaten badizut. Zer datorkizu burura?

Gauza oso polit bat!!

Nolakoa imajinatzen duzu Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa bat? Zerk ez luke falta beharko? Zerk ez luke lekurik?

Espazio onak bilatu eta antolamendu oso on bat egin, baina ziur proiektu berri eta oparo mordoa aterako zirela handik. Disziplina desberdinak elkarlanean egotea ez luke faltan egon beharko. Zerk ez luke lekurik: pentsamendu irekiekin (transmaribollo adibidez) lerrotuta ez dauden horiek.

Zenbat iraun beharko luke Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketak?

3?

Zein egitura eduki lezake festibalak? Zein ekintza, oholtzaratze, espazio, mahai-inguru...

Hasieran dinamizatutako tailerrak disziplina arabera antolatuak, tailer praktikoa. Hurrengo eguna tailerrak ere dinamizatuak baina disziplina artean

nahasketak. Gero kontzerturenbat edo txarla guairenbat jende gehiago ezagutu ahal izateko. Azken eguna ere displipinak nahasteko tailerrak, talde txikietan batu eta taldeak aldatzen joan ahalik eta pertsona gehien ezagutzeko balio izatea, modu kasual batean, handik ateratzeko jende berriaren zerrendarekin. Bazkariak denak batera egitea ere puntu garrantzitsua eta kontzertutxorenbaat ere azken egunean guai jejeje.

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketa aipatzen dugunean, ba al du lekua gazteleraz sortzen duen sortzaile batek?

Uste det ez zaizkiola atea itxi behar inori, jende ugari bizi da euskal herrian. Baina hori bai, den dena euskaraz izatea beraiek moldatu bahr izateko.

Zer garrantzi du zuretzat euskaraz lan egiteak edo tokian tokiko kultur ikuspegitik lan egiteak?

Handia, mundu geroz eta globalizatu batean aktiboki egin beharra dago borroka lokala denaren alde.

Izan daiteke arazo bat Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa soilik probintzietara mugatzea?

Aaaaa kriston pena izango litzake, bizkaian gauza osososo guaiak daude ere. Beste royito batekoak.

Zuk Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketan parte hartuko bazenu, nola egingo zenuke?

Lotsaz hahaha eta lagunekin izena emango nuke seguruna taldean juteko, baina tope.

Ze izen jarriko zenioke Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketari

Txarra naiz izenekin! Jajaja KUTIXI (?) ???? aa ez dakit jajajaja ??

Anexo J: Entrevista a Naroa Goñi Lasa, Cantante Y Compositora

Sarrera: Nortasuna

Zer da gaztea izatea?

Nire iritziz gazte izatea, gure bizitzako etapetako bat islatzen duen denbora tarte da. Gauza berriak edota esperientzia berriak probatzeko momentua. Hala ere, askotan idealizatzen den etapa gisa har dezakegu eta azken urteotan ikusi da dena ez dela polita gazte izate horretan. Nire kasuan asko ikasi dudan etapatzat hartuko nuke gazte izate hori, bai onerako eta bai txarrerako.

Zer da sortzailea izatea?

Nire ustez, sortzailea izatea, egunerokoan gertatzen zaigun guztiaren aurrean, begirada berritzaile edota iraultzaile batekin heltzea da. Esan genezake, aukerak ikus ditzakegula arazoak dauden tokian, eta gure kasuan irudimenarekin eta ausardiarekin erantzutea. Horrez gain, buruan dauden ideia guztiak antolatzea eta horiek aurrera eramateko gaitasuna ere badela azpimarra dezakegu. Egia da, batzutan sormena lortzen dugula artearekin baina gaur egun ikus dezakegu edozein eparrutan ezin dugula nahi beste islatu pentsatzen dugun hori. Gainera sortzaile izatea ez da beti erraza, normalean ekonomikoki ez delako egonkorrena eta zalantzak edota beldurrak gairatzea eskatzen duelako askotan.

Gazte sortzaile izatea?

Nire ikuspegitik begiratuta, gazte sortzaile izatea guztiz erronka handi bat dela esango nuke. Alde batetik, besteek zer pentsatuko duten horretan bizi garelako askotan, sozialki etapa gogorra izan daitekelako askorentzat eta bestetik, gizartearen presioa eta etorkizunarekiko ziurgabetasuna izaten dugulako gure inguruan.

Nola deskribatuko zenuke zure burua? Eta nola deskribatuko lukete zure ingurukoek zure burua?

Nire burua deskribatu beharko banu, esango nuke pertsona oso langilea naizela eta horrek ekarri nauela gaur egun nagoen tokira. Aldi berean, autoexigentzitzat hartuko nuke nire burua eta horrek alde txarrak eta onak dituela esan nezake, baina beharrezkoa dela esango nuke guztiaren gainetik. Egunero saiatzen naiz gauza berriak ikasten eta dena egunera eramaten, gazte sortzaile asko ikasleak baikara eta horri denbora asko eskeini behar zaiola sobran dakigulako. Nire ingurukoei galdetu ezkerro, pertsona burugogorra eta konprometitua naizela esango lukete, badakite zerbait nahi izatekotan lanean arituko naizela lortu arte, argi baitaukat lana egitea ezinbestekoa dela zerbait lortzeko, eta hala ere, ez dagoela ezer bermatuta.

Artea eta Gizartea

Zein lotura duzu arte munduarekin?

Nik arte munduan musikarekin lotura estua dudala esango nuke. Txikitatik musika ikasketak egin ditut eta betidanik gustatu egin zaidan zerbait izan da. Hau guztia, etxetik datorrela esango nuke, familian oso gertu izan baitut beti musika eta horri esker dudala musikarekiko dudana atxikimendua. Horrez gain, nik arte eszenikoetako batxilergoa egin nuen eta hor hasi zen benetan nire musikarekiko pasioa, bertan ezagutu baititut gaur egun eszenatoki gainean ditudan lagunak.

Zure ustez, zer paper du arteak gaur egungo gizartean?

Nire ustez, arteak paper oso garrantzitsua du gaur egungo gizartean, azken batean, artea egitea hautu politikotzat hartzen baitut nik. Arteak aukera ematen digu, gizarte bat eraldatzeko, tradizioztat hartzen dugunari buelta bat emateko (Euskal Herrian bereziki beharrezkoa ikusten dudana), gure hizkuntza den hori defendatzeko

etab. Gainera, arteak komunitateak sortzen ditu baita pertsonak ezagutzera bultzatzen zaituela esango nuke.

Zer paper jotzen du zure identitate pertsonalak (generoa, hizkuntza, lurraldea, etab.) zure obran?

Nire kasuan, identitate pertsonalak presentzia handia dauka egiten dudan guztian. Hizkuntzari dagokonez, euskarak leku berezia dauka nire obran, euskaraz sortze horrek hautu politiko bat daukalako atzetik. Horrez gain, nire burua adierazteko modu naturalena dela esango nuke baita nire sustraiekin konektatzeko ere, azken batean, Euskal Herrian bizitzeak eta hemengo errealitatea bizitzeak baldintzatzen du nire sorkuntza, nire kultura, eta nire ezin egonak. Generoa dela eta, nire esperientziak eta bizi izandako egoerek ikuspegi jakin bat eman didate eta hori ere, nahita edo nahi gabe, presente egoten da nire sorkuntza prozesuan. Azken batean, nire identitateak nire obra elikatzen du, eta aldi berean, obra horren bidez nire identitatea etengabe eraikitzen eta berrasmatzen ari naizela esango nuke.

Kultura Kudeaketa

Zure diziiplina artistikorako babes instituzional eta sozial nahikoa dagoela sentitzen duzu?

Nire ustez, oraindik ez dago izan beharko lukeen babes instituzionalik ezta sozialik ere gure diziiplina artisikoan ibiltzeko. Kasu askotan, kultur eskaintza moduan ikusten dira eta noski badirela, baina benetako lanbide edota gizarte eragile gisa ez dira inoiz ikusten, hau da, esan genezake bigarren maila batean jartzen dela eta ondorioz, ez zaiola inolako laguntzarik eskaintzen. Bukatzeko, gizartearen aldetik argi ikusten dut artistak askotan soilik produktuak saltze garaian baloratzen direla, baina ez prozesu sortzaile mailan.

Nolako harremana izan duzu kultur kudeatzaileekin? Zer nabarmenduko zenuke esperientzia horietatik positibo edo negatibo gisa?

Nire kasuan, harreman ona izan dut beti kultur kudeatzaileekin baina bai egia dela denetarik ikusi eta entzun dudala. Alde batetik, haien lana benetan gustora hartzen dutenekin topa egin dezakezu, benetan konprometituak daudenak eta gure lana ulertzen dutenak, hau da, gure lanari balioa ematen dietenak. Bestetik, gertutik entzun izan ohi dut, askotan kultur kudeatzaile askok mekanikoki ulertzen dutela haien lana, non, programazioak betetzea den helburua, alde batera utziz artista batek atzetik duen lana. Hala ere, esan beharra dut nire kasuan ia beti esperientzia onak izan ditudala.

Zer hobetuko zenuke zure inguruko kultura-proiektuak diseinatzeko edo kudeatzeko moduan?

Nire iritziz, hobetu beharreko gauza bat izango litzateke kultur proiektuak diseinatzeko orduan aniztasuna bermatzea eta publiko desberdinetara iristea. Askotan ikus dezakegu betiko publiko berari zuzendutako ekintzak antolatzen direla, eta horrek kultur dinamikak itxi ditzake. Garrantzitsua iruditzen zait belaunaldi berriei, lurralde ezberdinetako pertsoneri eta hizkuntza- aniztasunari ere tokia egitea. Horrez gain, uste dut proiektuak epe luzera begira pentsatu beharko liratekeela, hau da, ez soilik momentuko arrakasta bilatuz, baizik eta komunitateari ekarpen iraunkorragoa egin nahi dioten egitasmoak bultzatuz. Azken batean, kultura eraikitzeke modu inklusiboago, askotarikoago eta arudratsuago bat behar dugula uste dut.

Euskal Herriko Gazte Sortzaileak

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa esaten badizut. Zer datorkizu burura?

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa esan ezker, burura datorkidan lehenengo hitza elkargunea izango litzateke, bertan, sormena, identitatea eta konpromisoa islatuko diren espazio bat eta oinarritzat hartuz gure hizkuntza, gure kultura, gure izaera zein identitatea. Hau haruta, gazteok gure kezka, ideiak eta proiektuak partekatu eta hausnartzeko aukeratzat ikusten dut Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa.

Nolako imajinatzen duzu Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa bat? Zerk ez luke falta beharko? Zerk ez luke lekurik?

Nik nire buruan ez dut oso argi nola imajinatzen dudana topaketa bat, baina bai espazio dinamiko eta askea imajinatzen dudala. Nire ustez topaketa honetan ezinbestekoa litzateke askatasunerako espazioa, hau da, bakoitzak bere burua adierazteko aukera izatea inongo aurreiritzi gabe. Horrez gain, aniztasunari tokia egitea: sorkuntza mota guztiak, genero identitate guztiak edota lurralde aniztasuna kontuan hartzea. Honen arriskua izan daiteke lehiakortasun kutsu bat sortzea edota mailakatze dinamika bat sortzea, baina ziur nago elkar zaintzan eta elkarriketan oinarritutako espazio bat izango litzatekeela.

Zenbat iraun beharko luke Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketak?

Uste dut ezin dela finkatu zenbat iraun beharko lukeen. Hori erabakitze, lehenengo ikusi beharko litzateke ze egitasmo mota eskainiko litzatekeen, zenbat pertsona elkartuko liratezkeen etab. Beraz, behin hori erabakita, zehaztu haren denbora.

Zein egitura eduki lezake festibalak? Zein ekintza, oholtzaratze, espazio, mahai-inguru...

Festibalak egitura dinamikoa izan beharko luke oinarritzat, lehenago aipatu dudana bezala, egun bakoitza Euskal Herriko txoko ezberdinetan ospatuz. Horri esker, leku bakoitzeko errealitate eta sortzaile ezberdinak ikusiko genituzke eta aldi berean, batasuna lor genezake, sarea sendotuz. Egundak hoietan nik hiru atal antolatuko nituzke. Goizean tailerrak edota sormen laborategiak, eguerdian mahai-inguruak eta hitzaldiak sorkuntzarekin lotuak eta arratsalde gauean, eszenaratzeak, kontzertuak, poesia errezitaldiak, antzerki piezak edota performance-ak emateko espazio seguru bat bermatzea.

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketa aipatzen dugunean, ba al du lekua gazteleraz sortzen duen sortzaile batek?

Nire iritziz, galdera hau oso subjektiboa dela azpimarratuko nuke. Nik dena egiten dut euskaraz eta euskaraz sortze horrek hautu politiko bat atzetik duela esan dut lehenago. Hori oinarritzat hartuta, nire ustez gazteleraz sortzen duen pertsona batek ez luke tokia nik imaginatzen dudana topaketa honetan.

Izan daiteke arazo bat Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa soilik probintzietara mugatzea?

Nire ustez, hainbat arazo ekar ditzake soilik probintzietara mugatzea. Alde batetik, Euskal Herriko aniztasuna eta aberastasuna ordezkatu nahi badira, probintzia mailako ikuspegiak mugatu egin dezake lurralde txikiagoen presentzia edota ekarpena. Esate baterako, herri txikietako edo eskualde konkretuetako sortzaileek ikusgarritasun gutxiago izan dezakete eta hiri nagusiek protagonismo handiagoa har dezakete nahi gabe. Hau adibide moduan jar dezakedana, baina askoz gehio egongo dira.

Zuk Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketan parte hartuko bazenu, nola egingo zenuke?

Ba egia esan ez dakit, momentua iritsi orduan erabakiko nuke. Seguraski Naroa, nire lagunarekin joango nintzateke eta ahal dudan guztia aportatzen saiatuko nintzateke, beste guztien iritziak kontuan hartuz eta harreman berriak sortuz.

Ze izen jarriko zenioke Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketari?

“Bizisortzaileak”

Anexo K: Entrevista a Oihana Arana Cardenal, Escritora

Sarrera: Nortasuna

Zer da gaztea izatea? Adinak markatzen du gaztetasuna?

Ez dakit. Garaiaren eta lekuaren arabera aldatzen doan zerbait dela esan beharko nuke. Baina gure espazio denboretan badakigu ze adini dagokion gutxi gorabehera. Esango nuke gaztetasunari esleitzen zaizkion ezaugarriak honakoak direla: “Zalantza, indarra, grina...” Baina eslei diezaiokegu honako zerrenda ere: “Nekea, ezeinkortasuna, prekaritatea...”

Zer da sortzailea izatea?

Sortzailea izatea norbere kezkak eta bizipenak formatu artistiko batekin elkartu eta horrekin zerbait egiten duen gizabanakoa da.

Gazte sortzaile izatea?

Gaztetasunari dagozkion bizi baldintza konkretuetatik bere bizipenak formatu artistiko batekin elkartu eta horrekin zerbait egiten duen gizabanakoa. Lehen aipatutakok ezaugarriek bat egiten dute, adibidez, azken urteotan liburuak argitaratu dituzten euskal idazle gazteek poesia aukeratu izanarekin. Poesia egiteko ez delako denbora asko behar. Poesia egin daitekeelako edonon. Poesia prekaritate ekonomiko eta emozionalarekin lotzea oso interesgarria iruditzen zait.

Nola deskribatuko zenuke zure burua? Eta nola deskribatuko lukete zure ingurukoek zure burua?

Galdera zaila. Nire ingurukoek esango lukete beti daukadala ordenagailua, edo koaderno edo liburu bat eskutan. Berandu lokartzen naizela eta are beranduago esnatu... Nik sorkuntzari begira bizi den pertsona bat naizela esango nuke, uneoro hartzailea eta lantzean behin sortzailea. Hori da interesatzen zaidana, hor sentitzen naiz eroso.

Artea eta Gizarte

Zein lotura duzu arte munduarekin?

Aurretik esan bezala, asko gustatzen zait artea kontsumitzea, artista berriak ezagutzea... egunero naiz arte hartzaile esango nuke. Horrez gainera, lotuta estua dut hitzezko arteen sorkuntzarekin ere. Umetan hasi nintzen bertso-eskolan eta horrek eraman ninduen literaturari buruz orokorrean eta poesiari buruz konkretuki, gehiago pentsatzera. Orain uste dut artistikoki literaturak asetzen nauela gehiago, eta bertsoak gehiago sozialki.

Zure ustez, zer paper du arteak gaur egungo gizartean?

Artez eta artistaz inguratuta bizi gara. Ni bizi naizen hirian musikari asko ikusten dira kalean, pegatinak eta kartelak daude nonahi... Adi egonez gero, leku asko okupatzen du gure egunerokotasunean. Kontua da gero ea sozialki zenbateko garrantzia ematen zaion horri, eta ematen zaionean artea egiteko ze modu jartzen diren erdigunean. Ni kezkatuta nago azken aldiko Sold-Outaren kulturarekin, artea egiteko gorputz batzuek eta modu batzuek lortu duten legitimitate publikoarekin... Handiak handitzen eta txikiak txikitzen dituen sistema da arte komertzialarena... eta hori kezagarria da.

Zer paper jokutzen du zure identitate pertsonalak (generoa, hizkuntza, lurraldea, etab.) zure obran?

Noski, denonak beti. Eta ezetz esaten duena gezurretan ari da. Gure eguneroko bizitza, gure oroitzapenak, gure goputza... dira gure artearen oinarriak beti. Baita fikzioa edo fantasia idazten dugunean ere. Inoiz ezagutu ez dugun horretaz ezin dugu idatzi, eta egingo bagenu, besteen bizitzaz eta lanaz apropiatzen egongo gineteke, eta hori ez da zilegi. Bakoitzak bere errealitatetik sortzen du, eta nire ustez, hori oso interesgarria da.

Kultura Kudeaketa

Zure diziplina artistikorako babes instituzional eta sozial nahikoa dagoela sentitzen duzu?

Sortzailea izatea, lanbidez, oso zaila da. Eta horren ardura badute instituzioek ere. Muga asko jartzen zaizkie artistei eta laguntza gutxi... Nire disziplina artistikoa poesia da azken garai hauetan... eta tira, poesiak sozialki duen errekonozimendua nahiko txikia dela ukaezina da.

Nolako harremana izan duzu kultur kudeatzaileekin? Zer nabarmenduko zenuke esperientzia horietatik positibo edo negatibo gisa?

Jende oso jatorra eta jende oso gaiztoa topatu dut nire ibilbide laburrean zehar. Pertsona batzuk oso argiak dira eta oso ondo azaltzen dizkizute gauzak, beste batzuek, ordea ez... Kultur kudeatzaile on batek asko eman diezaioke herri bati edo proiektu bati. Tamalez, denak ez dira horrelakoak.

Zer hobetuko zenuke zure inguruko kultura-proiektuak diseinatzeko edo kudeatzeko moduan?

Uste dut errazegi jotzen dela "funtzionatzen duen" horretara eta ahaztu egiten zaigula ikuslea edo hartzailea hezi egin behar dela. Beti berdina ematen badiozu beti

hori gustatuko zaio. Ertzeko artearen aldeko apustua faltan botatzen dut. Euskal Herriko herri askotan gertatzen da, adibidez, erdarazko eskaintza kulturala euskarazkoa baino handiagoa izatea, bai kopurutan eta baita inbertsio ekonomikoaren aldetik ere. Emakume baino askoz gizon gehiago oholtzaratzen dira... eta zer esanik ez arraza, klasea... eta bestelako faktore batzuk neurtuta.

Euskal Herriko Gazte Sortzaileak

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa esaten badizut. Zer datorkizu burura?

Zerbait oso handia, kar, kar kar... Euskal Herrian sortzaile asko gaude, edo hori da nire irudipena. EITB kulturak astero-astero erakusten digu dozena erdia... pentsa! Esango nuke badaudela modu informalean egiten diren topaketa ez oso masibo batzuk. Ahots Baten Sormen egonaldia egiten dugu guk, adibidez, abenduro 15-22 urte bitarteko gazteekin, ahozkotasunarekin lotura duten gazteak elkartzen ditugu eta tallerak, elkarriketak, artista gonbidatuen bisitak... izaten ditugu bost egunez. Zirriborro idazketa egonaldian ere egon naiz azken bi urteetan, idazketarekin interesa duten hainbat pertsona ezagutu nituen horri esker eta orain asteen behingo zita bat egiten dugu batzuek idazteko. Topaketa handi bat egingo balitz, ondorio polit asko izango lituzkeela uste dut, batik bat, sortzaile asko elkartzeak gauza berriak sortzeko probabilitatea handitzen duelako...

Nolakoa imajinatzen duzu Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa bat? Zerk ez luke falta beharko? Zerk ez luke lekurik?

Elkar ezagutzeko espazio bat izatea gustatuko litzaidake. Hori baita, akaso, artearen munduan gabiltzanok daukagun gauza txarretako bat. Gehienok gure munduan ibiltzen gara eta oso bakarrik sentitzen gara bide horretan. Elkarren berri eta elkarren lanen berri izateko espazio bat izatea gustatuko litzaidake. Lantegiak,

elkarriketak, emanaldiak... jarriko nituzke. Baita gero horiei buruz berba egiteko foroak ere.

Zenbat iraun beharko luke Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketak?

Idealki bizitza oso bat, kar, kar, kar... baina hiru egunetako topaketa bat ondo legokeela uste dut.

Zein egitura eduki lezake festibalak? Zein ekintza, oholtzaratze, espazio, mahai-inguru...

Artea oso irekia da, eta zaila iruditzen zait disziplina oso diferenteetan dabilzan pertsonen interesak antzekoak izatea. Esan nahi dut, sortzailea izatea kirolaria izatearekin alderatuko bagenu, denek konpartitzen dute zerbait, baina ezin galdetuko diozu Futbolean dabilenari Teniseko arauen inguruan... Apur bat konplexua iruditzen zait zentzu horretan. Halere, zerbait egingarria planteatzekotan, txokoak egitea interesgarria izan daiteke. Demagun, goizetan lantegietan bil daitezke, alde batetik, hitzaren inguruan dabilzanak, beste alde batetik, arte plastikoetan dabilzanak, beste alde batetik oholtza gaineko praktika artistikoak egiten dituztenak... Arratsaldean intereseko gaien inguruko mahai-inguru orokorrak planteatzea daitezke. Inteligentzia artifiziala, hizkuntza, alor ekonomikoa... Eta gauean lantegi bakoitzetik ateratako pilulatxoak erakusteko tartea.

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketa aipatzen dugunean, ba al du lekua gazteleraz sortzen duen sortzaile batek?

Nire ustez ez.

Zer garrantzi du zuretzat euskaraz lan egiteak edo tokian tokiko kultur ikuspegitik lan egiteak?

Berebiziko garrantzia du. Hasieran aipatu dudan bezala, bakoitzak bere errealitatetik egiten dugu lan eta hain zuzen ere, hori da niri interesatzen zaidana.

Zure obrak zure ideologia erakusten du. Modu askotan. Zure pertsonaiek, zure hizkuntza hautuek, zure lekuek... erakusten dute zer interesatzen zaizun, zer erakutsi nahi duzun, zeri buruz pentsatu duzun... Eta euskal sortzaileok herrigintzarako dugun potentzialtasuna euskaraz eta tokian tokiko kultur ikuspegitik lan egitean oinarritzen delakoan nago.

Izan daiteke arazo bat Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa soilik probintzietara mugatzea?

Bai. Probintziak lan egitea muga bat izango litzateke, batik bat, probintzien arteko mugak ere muga fiktizioak direlako. Zentzu gehiago izango luke arte disziplinen arabera banaketak egiteak.

Zuk Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketan parte hartuko bazenu, nola egingo zenuke?

Egingo balitz, planteamentua zein den ikusiko nuke lehenbizi, eta gustokoa balitz joango nintzateke seguru. Motibatuta joango nintzatekeela uste dut, jendea ezagutzeko gogoz, jendearen obra ezagutzeko gogoz eta sortzeko grinatsu ere bai.

Ze izen jarriko zenioke Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketari?

Oso galdera ona... ez dakit erantzuten. "Oso galdera ona" izan daiteke, adibidez?

Anexo L: Entrevista a Saioa Iraizoz Erbiti, Bailarina

Sarrera: Nortasuna

Zer da gaztea izatea?

Gaztea izatea da norberak bere burua edo izateko era edo bizitzeko era batean kokatzen duenean. Hau da, gaztea izatea normala den moduan edo sozialki normalizatuta dagoen buruan adintarte batean dauden pertsonak dira gazteak, ez? Adibidez, 18 urtetatik 30era baina nik uste dut haratago doala. Baizik eta heldua

den jende asko gaztea pentsatzeko edo bizitzeko moduagatik edo sozialki gaztea den pertsona bat adintarte horretan dagoena askotan heldua da. Ez da pertsona gaztea baizik eta heldua da. Horregatik honekin esan nahi dudana da gaztea den norbaitek bizitzeko modu bat edo pentsatzeko modu bat dauka. Ez dakit bizitzeko gogo hori...

Zer da sortzailea izatea?

Nik uste edo nire ustez pertsona batek zerbait aldatu nahi baldin badu, zerbait defendatu nahi baldin badu, zerbait kalera atera nahi baldin badu, zerbait besteongandik entzuna izatea nahi badu, hark dituen gogo guzti horiek hartzen ditu eta produktu bat sortzen du. Ez produktua, haratago doa, izan daiteke hori, sorkuntza prozesu baten azalpen bat edo ikuskizun bat ez amaitua. Ulertzen nauzu. Baina, bai. Sortzailea da norbaitek zerbait errebindikatu nahi duenean ematen duen pausua da. Edo hartzen duen erabakia da. Sortzekoa. Zerbait sortu nahi dut hau defendatzeko, hau aldarrikatzeko eta holan.

Gazte sortzaile izatea?

Gazte sortzailea, hau zaila da egia esan, gazte sortzailea nere ustez aipatu dudana bi definizio kakotx artean nahasiko lirateke. Hori. Gazte batek zerbait kaleratu nahi baldin badu sortu behar du. Orduan, hor, bi “diziplina” nahasten dira. Gazte bat, pertsona, norbera eta sortzaile edo sorkuntzaren munduan sartzen da zerbait lortu nahi duelako.

Nola deskribatuko zenuke zure burua? Eta nola deskribatuko lukete zure ingurukoek zure burua?

Ba nire burua honen harira gazte deskribatuko nuke. Neska gazte bat bizitzeko gogokin, munduan zer dagoen deskubritzeko nahiarekin, bizitzeko krixton gogokin, ikasteko, nire inguruko pertsonetatik asko ikasi, landu, laztandu,

harremandu, maitatu, laguntzeko prest nago beti, langile oso ona naiz ebai. talde lanean lan egitea asko gustatzen zait, ez naiz pertsona bat bakarrik lan egitea gustatzen zaiona, bai oso independentea naiz, bakardadea asko gustatzen zait ta nik nire gauzak iten ttut, gero beste pertsona batzuekin egoten naiz, baina nire osasun mentala asko zaintzen duen pertsona naiz. Eta hola. Oso alaia. Eta nire ingurukoek nola azalduko zuten nire burua, esango zuten, pertsona alaia, indartsua, langilea, beti laguntzeko prest dagona, irrifar bat ateratzen dizuna, edozertarako berarekin kontatu dezakezuna, maitakorra, maitalea eta pertsona ona. Sin mas.

Artea eta Gizarte

Zein lotura duzu arte munduarekin?

Arte munduarekin dudana lotura da ni dantzaria naizela. Dantzari profesional moduan formatzen ari naiz, momentu hauetan bai egia da koreografia eta interpretazioa ikasi nituela Bilbon Dantzertin, orduan artearen munduarekin lotura oso estua daukat. Baita ere, dantzaz aparte musika ere asko gustatzen zait. Eta orduan arteak dituen bi arlo horiekin oso konektatuta sentitzen naiz.

Zure ustez, zer paper du arteak gaur egungo gizartean?

Arteak gaur egungo gizartean paper nahiko garrantzitsua duela uste dut. Geroz eta bultzatuagoa den diziplina da artea. Geroz eta jende gehiagok nahi du artearen inguruan dauden diziplinetan parte hartu, bai dantzan, bai musikan, margoketan, arte dramatiko... eta nik uste dut gaur egun arteak inpaktu sozial handia duena, non artearekin gauza asko lortu ditzazkegula... hori, beste behin errepikatzen naiz. Gure nahiak kalera ateratzeko eta goikoek entzuteko, entzun dezaten, edo gu entzuteko modurik onena edo onenetarikoa iruditzen zait. Kalera atera eta artearen esker gure nahiak eta helburuak aldarrikatu.

Zer paper jokutzen du zure identitate pertsonalak (generoa, hizkuntza, lurraldea, etab.) zure obran?

Ba nire nortasunak nik uste dut, eragin handia dute nire piezetan edo nire sorkuntzetan nolabait norbaitek sortzerako momentuan bere bizipenak edo berak bere bizitzan bizi izan dituen esperientzia horiek kontuan hartzen ditu. Nolabait, esperientzia horiek zure identitatearen barne edo zure identitatearen parte dira. Ni, hori, emakume euskalduna naiz eta euskalduna izateagatik x edo y egingo dut, x edo y plasmatuko dut. Ziurrena hizkuntza euskara izango da, biño horrek balioko dit Euskal Herrian. Gero, Espainia mailan mugitu nahi badut pieza, erderara aldatuko nuke, baina bai egia da identitatea lehenengo horrela pintzelada eman behar banioke identitateak izugarrizko papera edukiko du edo edukiko luke. Nolabait, norbera unikoa da, esaten den modun, orduan bakoitzak bere mamatu duen hori plasmatu nahiko du, %100.

Kultura Kudeaketa

Zure diziiplina artistikorako babes instituzional eta sozial nahikoa dagoela sentitzen duzu?

Nire ustez, nire diziiplina artistikorako babes instituzional eta sozial gutxi daude, hemen Nafarroan laguntza eskasak ditugu artista moduan bizi ahal izateko, orduan nik uste laguntza gehiago behar ditugula norbaitek autonomo edo bere sorkuntza atera nahi baldin badu, laguntza oso gutxi daude hori aurrera atera ahal izateko. Zerbait pribatuan sartu behar zara, edo kontzertu oso onak eduki behar dituzu zuk zure poltsikotik ahalik eta diru gutxien ipintzeko.

Nolako harremana izan duzu kultur kudeatzaileekin? Zer nabarmenduko zenuke esperientzia horietatik positibo edo negatibo gisa?

Ez dut loturarik eduki kultur kudeatzaileekin eta ez dakit honen harira zer nabarmenduko nuke.

Zer hobetuko zenuke zure inguruko kultura-proiektuak diseinatzeko edo kudeatzeko moduan?

Nire inguruan kultur proiektuak diseinatzeko edo kudeatzeko hobetuko nuke pertsonen arteko komunikazioa. Hau da, esan nahi dut, nik zeozer aurrera atera nahi baldin badut, nire lantaldean lengoaia berdina hitz egin beharko genuke, hau da, ideologia berdina eduki, helburu berdinak, eta horren harira iritzi desberdinak egotea. Baina, bai, lehenengo kapa bat orokorra izatea. Eta kudeaketan ahalik eta ahotsetik ahotsera gehien egotea. Horrela nik uste zabalitzen direla pilo bat gauzak.

Euskal Herriko Gazte Sortzaileak

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa esaten badizut. Zer datorkizu burura?

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketa entzuten baldin badut datorkit burura gazte talde bat non bakoitzak haren pentsamenduak edo oso argi dituen. Eta bestean aurrean defendatzeko kapaza den. Bakoitzak eramango du bere sorkuntza non sorkuntza hori esanahi batzuk edukiko dituenak, orduan gazte horrek oso argi dauka zer ari den plazarazten. Hau da, publikoak, berak badaki publikoak zer ulertuko duen. Orduan, nik uste dut topaketa horretan agertuko diren gazte sortzaileak oso argi edukiko dute zer esan edo zer plasmatu nahiko duten publikoari eskaini nahi dioten horrekin. Ziurrena Euskal Herriko jendea izango zen, euskalduna, eta antzeko ideologia edukiko lukeena.

Nolakoa imajinatzen duzu Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa bat? Zerk ez luke falta beharko? Zerk ez luke lekurik?

Imajinatzen dut etxeko zeoze. Informala baina aldi berean formala. Baina, egoteko leku seguru bat. Ez dakit azaltzen naizen. Espazio seguru bat, ideaiak partekatzeko espazio bat, jendea ezagutzeko espazio oso on bat, txarлак sorkuntzen erakustaldiak, komunean ipintzeko hainbat gaien, nola esaten da, debate bat, dantza klase batzuk, arte dramatikoaren zerikusia duten klase batzuk, margoketa klase batzuk... ez bakarrik joan eta ikusi, baizik eta parte hartu. Nire ustez parte hartzearen ideia horrekin gauza asko lortu daitezke. Zeren parte hartzerakoan zuk ez dakizu zer egin behar duzun, orduan inprobisaketari esker gauza ederrak agertzen dira eta inprobisaketa partehartzearekin lotuta dago. Eta, zerk ez luke lekurik? Politikaren inguruko hitzaldiak edo. Nik uste hori gazte sortzaileen topaketa batean lekuz kanpo egongo zen. Politika sartzea justu hor. Politika sar dezakezu beste modu batzuen bidez, biño hola hitzaldi bat politikoki, ez. Nik ez nuke sartuko.

Zenbat iraun beharko luke Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketak?

2-3 egun iraun beharko luke.

Zein egitura eduki lezake festibalak? Zein ekintza, oholtzaratze, espazio, mahai-inguru etab.

Festibalak nik uste dut egun bakoitzean nahastu beharko ziren diziplinak. Igual egun batean dantza eta margoa elkarrekin, beste egun batean antzerkia eta musika elkarrekin, beste egun batean denak elkarrekin enplan loco, beste egun batean igual bakoitzak berea edo egunean bertan goizean dantza eta antzerkia aparte eta atsaldean bi horiek elkartu, bi taldeak elkartu eta inpro bat egin haien artean, eta hor partehartzea, pues publikoak sartu nahi baldin badu, sartzea. Enplan goizean zeoze formalagoa egin eta atsaldean pixkat mas loco, lujuria, igual musika ere ipini eta

dantzatu, eta dantza klase batzuk eman... egun baten goizen batean edo mahai inguru bat, pues hori, egin dizkidazun galderen inguruan; zer nolako inpaktua duen arteak; eta zer lortu dezagun guk gazte sortzaileak gure artea zabalduz edo bultzatuz. Ez dakit, pixkat hola.

Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketa aipatzen dugunean, ba al du lekua gazteleraz sortzen duen sortzaile batek?

Bai noski, ba al du lekua gazteleraz sortzen duen sortzaile bat. Bai badauka lekua. Lehen esan dut, ziurrena Euskal Herriko sortzaileak edo euskaraz dakitenak izango litzatekeela, jarraitzen dut hori pentsatzen, baina gazteleraz sortzen duen sortzaile batek edukiko luke lekua.

Zer garrantzi du zuretzat euskaraz lan egiteak edo tokian tokiko kultur ikuspegitik lan egiteak?

Ba niretzat euskaraz lan egitea, ni nagoela nire dantza eskolan, Altsasuko dantza eskolan euskaraz ematen ditut klaseak eta iruditzen zait zerbait oso berezia, zerbait lekukoa. Ze gero Iruñan lan egiten dut eta han erderaz ematen ditut dantza klaseak umeek ez dakitelako euskeraz. Eta nik uste euskaraz emateko aukera hori ez dela galdu behar. Euskal Herria mailan bultzatu behar da klaseak euskaraz ematea ideia hori edo, ez dakit super garrantzitsua iruditzen zait ze terminologia aldetik oso ezberdina da. Ze normalean dantza klaseak erdera edo ingeleraz ematen dira. Eta euskerara aldatzen ditudanean, ostra, moldatu behar naiz pila bat. Lengoaia oso esberdina da, pero uste dut krixton aberatsa naizela dantza klaseak euskeraz ematen. Edo emateko aukera hori edukiz.

Izan daiteke arazo bat Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topaketa soilik probintzietara mugatzea?

Nire ustez arazo bat izan leike gazte sortzaile topaketa soilik probintzietara mugatzea. Probintzia horietatik kanpo bizi den jendea lekuz kanpo sentitu ahal daitekeelako.

Zuk Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketan parte hartuko bazenu, nola egingo zenuke?

Ba nik Euskal Herriko Gazte Sortzaileen topkaetan parte hartuko banu nik uste zeoze nirea aurkeztuko nuke non amaieran publikoa horren parte izango zen. Edo baita ere dantza klase bat, horrela, juguetona, sortuko nuke. Gero ematen dit agian lotsa, baina nik egin beharko banu hori egingo nuke

Ze izen jarriko zenioke Euskal Herriko Gazte Sortzaileen Topaketari?

EH Gazte Sortzaileen Topaketa.